

BAZTANGO HIZKERAZ OHAR BATZUK

Donostia, 1991-IX-27

Pello Salaburu

1978an, orain dela 11 urte luze hain zuzen, nere sortetxean eta inguruetan aditzen nituen zenbait esaera eta hitz biltzen hasi nintzen kuaderno ttipi batean, metodologia argirik segitu gabe, egia aitortu behar baldin badut. Baina han sartzen nituen, hala ere, nere belarrian pixka bat bitxiak ziren hitzak eta esamoldeak, bitxiak betiere Bilbo inguruan nere eguneroko lanean eta harremanetan erabiltzen nuen euskara estandarizatu horrekin konparatuz. Ez dira, hortaz, benetan bitxiak: hango euskararen ezaugarritzat har daitezke batzuk eta beste batzuk, berriz, egun galdu samar dauden arren, aski hedatutzat jotzen ahal dira.

Honen antzeko zerbait egina du Mariano Izeta elizondarrak ere, bai bere eleberrietan, bai espreski gure agerkarian argitara eman zuen “Baztango hiztegi ttipia” izeneko lanean (*Euskera* XXX, 2. aldia, 1985, 2, 553-617). Izetaren lanean informazio handia dago eta, ohartu naizenez, nik bilduriko oharrak bat datoz anitzetan berak emandakoekin. Hortaz, berriak diren batzuk bakarrik aipatuko ditut hemen. Eta aldika, Izetarekin bat ez datozen beste zenbait, nahiz ez den erraza gauzak ongi segurtatzea, lan horretan ez baitira hitz guztiak alfabeto hurrenkeran ematen. Esan dezadan, bestetik, nere ohar hauek G. Garateri ere utzi nizkiola eta berak *Erderakadak* liburuan bildu dituela zenbait. Gainera, irakasle honek eginak ditu egonaldiak ere nere gurasoen baserrian.

Hona hemen, bada, hitz eta esaldi horietako batzuk, ordena sobera errespetatu gabe emanak:

- “Eman” aditza eta “garri” atzizkiaz baliatuz sortzen da “ahalke-mangarri” (*alkemangarri* ahoskatua, soinu hasperendu hori kontuan hartu gabe) eta “irrimangarri”, ahalkea ematen duena eta irria edo parregurea ematen duena adierazteko, jakina. Izetak “irringerrie” eta “iringarrie” biltzen ditu, neretako aski arrotzak direnak. Agian Elizondotik beheiti hala esaten da.

- “Azolagabe” (ez “axolagabe”) esaten zaio gauzak egiteko ardurarik jartzen ez duenari: “Arraio azolagabea!”.

- “Ttanta” hitza erabiltzen zen gure etxean (egun ez dut entzuten hala ere) “ardo” adierazteko: “Nahi duzue ttanta?”. Eta horrekin baso bat ardo eskaintzen zen. Dena dela, ez dut inoiz ere entzun, eta biziki arraroa egingo litzaidake, “bost litro ttanta” edo horrelakorik.

- “Burkanda” deitzen zaie han belagietan aurkitzen diren gora-behera txikiei: “Hor beti neketan ibiltzen gara belar mozten, burkandaz bete baitago”. Ez dakit zer den hitz hori, baina agian hitz elkartua edo dateke, arrazoi fonologiko batengatik: gauza jakina da gure aldean “u” bokalaren ondotik ez dela inoiz ere “a” ageri hitz soiletan: *urine, ure, kunke, lurre, gauze*, e.a. Adibide horietan ikusten denez, “a” artikulua itxi egiten dugu “e” bihurtuz. Adizkiek “-la” atzizkia hartzen dutelarik ere gauza bera suertatzen da: “dugule” esaten dugu, ez “dugula”. Baina araua badirudi ez dela hain estua, normala denez bestetik, hitz elkarketan: *ilunabarra, pausugaxto, urdama*, datugarai, e.a. Hitz horietan guztietan “u-a” segida aurkitzen da, inolako eragozpenik gabe. Hori dela eta, “burkanda” bezalako hitz bat hitz elkartutaz joko bagenu errazago esplikatuko litzateke zergatik ez dugun “burkenda” egiten. Baina hau hipotesi hutsa da, nola-nahi ere, nik ez baitakit zer den hitz hau.

- “Pututs” erabiltzen genuen eskolan, ederki oroitzen naiz, halako esanahi garbi eta zehazturik gabeko izenondo bezala. Gaztelaniaz gaur ere “sinvergüenza” hitzak adiera anitz du eta horietako bat da, jakina, ‘lotsarik ez izatea’, baina esanahi horrek ez ditu hitzaren esangura guztiak agortzen. Bada, ez dakit, “pututs” delako hau ere umeen artean erabiltzen genuen eta nagusiek umeekin erabiltzen zuten, ez haien artean. Izetak “pututx” (ez “pututs”) aipatzen du, oihaneko animalia bat izendatzeko: “hurón”, “untxarta” edo dena delakoa.

- “-sko” atzizkia maiz ageri da: “kontesko” (bat pozik dela adierazteko), “urrunsko” eta “urrusko”, (zerbait urrun dagoela), “aspaldisko”, “goitisko”, “beitisko (beheitisko)”, “barnasko”, “haundisko” (honek “hanbatekoa”, “gaitza” edo “gogorra” ere esan nahi du, oso handia alegia), “motelsko”. Atzizki hau bera ageri da beste esaldi honetan ere: *Bai, atzo goizian hil zen Mattin. Aspaldi huntan ez ongixko zagon*.

- Gaur egun hainbeste erabiltzen den “ez da?” hori, “arratsaldean joango zara, ez da?” esaten dugunean, adibidez, nere gaztaroan “ez dela baietz?” zen: “arratsaldean joango zara. *Ez dela baietz?*”.

- “Ostikoa” gehienetan “purdienostikoa” zen gure artean, “ipurdian ostikoa”, jakina. Aipagarriena da hitz elkartu bat egin dugula orain adizlagun eta izen baten artean, batere arrunta ez den bezala izen beregainko berria sortuz: *purdienostiko aundi bet main datzut* (“ipurdian ostiko haundi bat emanen dizut”), sintagma osoa “purdienostiko aundi bat” kateak osatzen duela. Ipurdiarekin zerikusia duten “itzilipurdi” eta “totoriko” Izetak bilduak dituen, ez ditut aipatu.

- “Maia” da belarrarekin egiten ditugun lerroei ematen diegun ize-na. Belarra edo soroa (hau da, belarraren bigarren moztea) “maietan” biltzen dugula esaten dugu: *zazpi mai dire belai hortan* (“zazpi mai dira belagi horretan”), *mai goorak in tuzte* (“mai gogorak egin dituzte”). Belarrarekin batera hitz hau ere desagertuko da gure hiztegitik, baina komeniko litzateke halako hitzei bere lekua ematea hiri hizkuntza batean ere.

- “Lepoa” da, jakina, burua eta gorputzaren arteko atala, baina lekuak adierazteko ere balio du: *mendilepo hortan agertzen omen ziren Lanzko lapurrak*.

- Bat gaizki edo eri dagoelarik, lehenik “okaka” hasten da eta azke-nean “goitikeka” botatzen du jan duen guztia.

- Zerria “zerri alkian” hiltzen denean ez da “txerri-boda” egiten, “zerri-hiltzea” baizik eta, lehenago, gosaldu ondoren, “zerri-puxkek” banatzen ziren inguruko etxeetan: zareto batean eramaten ziren zerri odol bat, sahieski zati bat eta halako puska batzuk aza hosto batean inguraturik. Zerriek zerri bazka ematen zaien bezala, oiloei “orea” ematen zien nere ama zenak: artoirin eta urarekin egindako bola hori batzuk ziren hauek.

- Behin gertatu zitzaidan niri hemengo jatetxe batean bazkaldu ondoan aulkia hautsi eta lurrera erori nintzela. Ohartua nintzen, bai, “katadera” hura “kilike” zegoela, ez baitzen batere ongi pausatzen eta batzuetan “kirrinkeka” baitzebilten, halako “asots” berezi bat atereaz, baina ez nuen “tenorez gatzigatu” (ez nuen garaiz abisatu) eta horregatik erori nintzen nonbait.

- Ilunabarrari “atsalde apala” deitzen zion anitzetan nere aita zenak: *atsalde apalian torko da Patxiko*.

- Beste nonbait ere esana dago “urean” eta “uretan, putzuan” eta “putzutan, suan” eta “sutan, kean” eta “ketan” bikoteen esanahia sistematikoki bereizten dela Baztango aunitz tokitan. Hauxe da nere kuader-no horretan ikusi dudan beste ohar bat: *Elurrian egonak gara azkeneko aste osoan!* Ohar gaitezen “elurrean” esaten dela hor, ez “elurretan”.

- “Filde” hitza erabiltzen zen, lehenago bederen, eta hemendik sorturiko “fildero” eta “fildeketa”: tresna txikiak, trapaak eta puskak biltzen zituenari esaten zitzaion. M. Izetak ere biltzen du hitz hau eta azpimarratu nahi dut berak dakarren adibidea, han ikusten baita Baztan-go hizkeraren beste ezaugarri bat. Hala dio Izetak: *Zu beti filde dariola*. Aipagarria da “dariola” adizkia adberbio huts bezala erabiltzen dela Baztanen, nik dakidala, pertsonaren edo aldiaren bereizketarik egin gabe: *etxera itzuli behar izan dut, odola dariola; ez zara oroitzen odola dariola sortu zinela etxean?*, e.a.

- “Ixtentean” hitzak bi esanahi ditu, gutxienez: “berehala” eta “orain dela guti”: *ixtentian torriko da, istentian torri de.*

- Ume txikiei egunean zehar lauzpabost aldiz jartzen eta kentzen zaizkien oihalei “xatarra” esaten zaie zenbait tokitan. Nik ez dut hitz hau hala, zuzenean, entzun Baztanen, baina nere oharretan ageri da hitz hau argi eta garbi orain dela urte batzuk entzundako esaldian: *Hau mutil gaztia... xatar urrine kentzekua!*

- Bat “nabal” edo labaina batekin zerbait ebakitzen ari delarik arriskua du zauri bat egiteko bere eskuan. Zauri hauei “sakaila” esaten zaie (aditza “sakaildu” dela).

- Gaur egun gure makina eta tresna elektronikoak argi indarrarekin lotzen ditugunean “argia gastatu” egiten dutela esaten dugu. Baztanen, ordea, plantxa batek, adibidez, ez du gastatzen: *izigerrikerie tirtzen du plantxak. Arras karioa da!*. Horixe daukat apuntatua andre baten ahotik.

- Gauzak pentsatu gabe ateratzen edo egiten direlarik ustegabeen suertatu direla esan ohi dugu. Baztanen, ez; Baztanen “usteketan” egiten dira.

- Omenka ari garelarik horrela diogu: “ez omen da etorri”, “ez omen du egingo”, e.a. Hara zer hartu nion arizkundar bati: “Deus ez du jaten izan behar!”. Eta honekin hauxe da adierazi nahi zuena: “Ez omen du deus ere jaten”. Beste batek hauxe zioen: “horrek berezi izan behar zuen...”, honako hau adierazteko: “horrek berezi izan omen zuen”. Esaldi hauetan hizkera doinuak aparteko garrantzia du esanahia zehazteko orduan.

- Egia da beste tokiekin erkatuz gero, Baztanen ez dela ia batere erabilia “egin” aditza indartzaile gisa. Horrela, “hautsi egin du” edo “sartu egin da” bezalakoak ez dira maizegi entzungo, han, normalean, “hautsi du” eta “sartu da” esatearekin aski baitugu. Hala ere, nere oharretan aurkitu dut esaldi bat, han hartua, azterketa xeheagoa eskatuko lukeena: *Zer egin ziren gero? Mozkortu egin ziren biek.* Hau batek esana da pasadizo bat kontatzen ari zelarik. Bi aldiz ageri da hor “egin”, galderan eta erantzunean. Baina bietan “izan” aditza hartzen du laguntzailatzat. Bigarreanean arrunta da: “mozkortu egin dira” Lehenbizikoan, ordea, ez hainbeste. Egungo euskararen behintzat ez dira horrenbeste entzuten “zer egin zinen gero?” bezalako esaldiak.

- Jubilazioa kobratzen dutenek ez dute erretiroa kobratzen. Hobeki esan: orain agian bai, ikastoletan ere hori erakusten baitute, baina lehengo “xahar parte” kobratzen zuten: “Bai, gure Tadeo iaz hasi zen xahar partia hartzen”. Nere sortzetxean ere, nere gurasoak ezkondu zirelarik egin zituzten paperak begiratzen egon nintzen, eta Iruñeko

notariak horrela zuen jarria paper ofizialetan: “los herederos le darán de “zarparte” una oveja...”. Hitza hantxe dago bildurik, erdal testuan.

- Orain aita eta ama askok nahiago izaten dute umeak biberoiarekin hazi, Espainiako partean. Frantziakoan ez dakit zerekin. Bada, oroitzen naiz gure etxean urtero-urtero hazten zela bildots bat Bazko egunean jateko. Han egoten zen, behitegian janbaka gaisoa ezin laketuz. Bildots hari biberoiarekin ematen genion esnea, baina ez genuen biberoiarekin hazten: “Bai, guk urtero hazten dugu bildots bat eskutik”, esaten zion aita zenak adiskide bati. Bildots hark “urrupeka” edaten zuen esnea.

- “Lakua” urez beterik dagoen putzu handi bat dela pentsa dezake norbaitek. Ez dakit bada. Behin langile bat ari zen esplikazioak ematen eta honela zioen: *Hure zen hure lana! Porlanez denian lakue ine* (“Hura zen hura lana! Porlanez denean lakua egina”). Zer esan nahi zuen galdetu niolarik, lakua horrek “teilaren forma” adierazten zuela esan zidan. Eta nik sinetsi nion.

- “To” hitza, hain ttipia izanik ere, oso emankorra da hango euskararen. Nere etxean segurik, bazituen lau esanahi: hasteko, behiak deitzeko orduan erabiltzen den hitza da: “To, to, to,...”; bestetik, “tori!” adizkiaren hikako forma da: “To! Hemen duk!”, hirugarrenik, ezetza adierazteko oso erabilia da: “Bai to!”. Eta azkenik, harridura adierazten du, “hara!” esango genukeen tokian jar daitekeelarik: “to!”. Jakina, hemen ere hizkera doinuak eta testuinguruak markatzen du hitz ttiki honen esangura.

- Gure herrian, erle edo liztor bat pausatzen baldin bazaizu eskuan edo buruan, ez dizu eztena sartzen. Han “atsikitu” egiten dute. Nik esango nuke, baina ez naiz segur, “atsikitu” aditz hau atsiki bizidunei bakarrik egiten zaienean erabiltzen dela: “eskolan atsikitu dute” esanen da norbaitek atsiki egiten badio ume bati. Hortaz, sugeak edo erleak atsikitu egin dezake. Baina nekez esanen dugu “sagarra atsikitu dut”, sagarrari atsiki egiten baizaio. Edo atsiki eman: “Emaioak atsiki!”.

- Eta zer gertatzen da erle batek atsiki egiten badizu? Zauria infekta-turik gerta daitekeela. Ez; gure herrian ez dira, edo ez ziren, infektatzen: halakoak “haserretu” egiten ziren. “Atzo behatza suan erre eta begira nola haserretu zaion gaurko!”.

- Zerbait jaten ari garelarik eta bereziki ona dela iduritzen baldin bazaigu “aute” dagoela esaten dugu: *Bai, hau aute dago!*. Ez dakit nik zer den hori, izenondoa ala aditzondoa, singularrean bakarrik entzuna baitut. Eta jakina, zer esaten dugu batek jaten duen “guztia aute” aurkitzen baldin badu? *Hoberen klasian bizi dela, errege bezala bizi dela*. Horiek ere han bilduak ditut: “hoberen klasean” eta “errege bezala”,

“errege” hitza mugagabeen doala. Hoberen klasean bizi ez direnak, baina hala ere ongi bizi direnak, “hanbatian daudela” esaten dugu, franko ongi daudela adierazi nahian.

- Hiri handietan eguneroko kontua dugu eraikuntza ederrak eta plazak etxe berriez inguraturik gelditzea. Han ere ari zen baztandar bat kontatzen zer gertatuko zen Elizondon berriki konpondua zen asiloarekin eta honela zioen: “Asiloa ere berriz bilduko da etxez”. Asiloa etxez bildu, horra hor esaera ederra, egungo euskara estandarrean gehienek “asiloa etxez (nahiz etxeek) inguratuko” esango genukeenaren tokian.

- Lurreko sua pizten denean egurra erabiltzen da, jakina. Baina han botatzen den egurren artean ere bada desberdintasuna. Normalean bada enbor bat han egoten dena orduak eta orduak, eta enbor honen inguruan botatzen dira egur txikiagoak. Enbor horren izena “sukilekoa” da (M. Ize-tak “sukil-onborra” ematen du, neretzat arrotza dena).

- Batek diru anitz duenean oso aberatsa dela esaten dugu normalean. Baztanen bada, ordea, beste modu bat ere: *Horrek badu osaba bat Ameriketara aberats ukitue dena*. Eta aberatsak direnak honetara edo hartara “jarraziak” direla esaten da, “jarrazi” eta ez “jarrerazi”. “Sarrazi” esaten dugun modu berean. Jakina, “sarrazi” aditza “sarrarazi” aditzaren laburdura fonetikoa izan daiteke, aski erraz esplika genezakeena.

- Norbaiti zerbait gertatu ote zaion jakin nahi dugunean oso arrunta da honako hau galdetzea: *Baduzue diferentzie zerbait?* Edo beste hau ere, sintaktikoki aldrebestuagoa, itxuraz bederen: “Zerbait baduzue diferentzie?”.

- Bada aipagarria den sozietiboaren erabilera bat. Aditz izena sozietiboan jartzen delarik, denboraren kutsua hartzen du: “hau idaztekin joanen naiz; ikastolara joatekin ikasiko duzu hor”. Esaldi horiek hauxe esan nahi dute: “Hau idazten dudalarik joanen naiz” eta “ikastolara joaten zarelarik ikasiko duzu hori?. Betiere geroari begira, ezin baitugu atzera begiratu. Horrela, ez litzateke zuzena izango esaldi horren parekoa den beste hau: “*hau idaztekin etorri zen (hau idatzi zuelarik etorri zen)”. Esan dezadan, bide batez, ez nekikeela nola idatzi “ikustekin, joatekin” eta halakoak, ditugun aukerak “ikustearekin” eta “ikusterekin” baitira, eta horien artean ez da “ikustekin” sartzen. Agian mugatua aukeratu beharko litzateke.

- Teilatuak etxea estaltzen du. Bada, hala ere, etxearen paretatik kanpora ateratzen den teilatu zati bat, halako gorape bat egiten duena, hegal baten itxura hartuz. Bati baino gehiagori entzuna diot hori “kuarrazpia” dela.

- Legeak agintzen duenetik gora ibiltzen baldin bazara autobidean, ez da batere harritzekoa ertzainak zigorra jartzea. Zigor hori multa izan daiteke edo gidatzeko baimen agiria kentzea. Bada, han polizia ez du

karneta kentzen: “Bai, atzo Angel Mariri karneta goratu omen zioten”. Karneta goratu, horixe da egiten dena. Mahaia goratu esaten den moduan, bazkal ondoan mahai gainean geratzen diren plater zikinak eta ogi papurak biltzen edo jasotzen direla adierazteko.

- Orain gero eta maizago ikusten dira landareak erosteko tokiak. Landareak leku berezietan hazi behar dira eta egun gehien entzuten duguna da landareak “biberotetan” erosten direla. Baztanen, ordea, gauza jakina da lehenago ia etxe bakoitzen aurkitzen ahal zirela landareak hazteko toki bereziak. Nere etxean beti “minditze” deitu izan zaie horiei. M. Izetak ere badakar hitz hau, pixka bat aldatua, berak “mindeitze” jartzen baitu.

Eta besterik gabe hemen bukatuko dut hitzaldiño hau, pixka bat nahasian eman dudana. Aztergai gehiago ere badut, baina orain esaten baditut denak, zertaz ariko naiz orduan berriz ere txanda “etortzekin?”. Honenbestez, esker mila denei entzuten egoteagatik.